



53/2019 MENDIALDEA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN EBAZPENA

MENDIALDEA MANKOMUNITATEKO LAN POLTSEN KUDEAKETARAKO ARAUAK.

AURREKARIAK:

Mendialdea Mankomunitateak lau lan poltsa dauzka, bere Funtziopeko hiru jardueratan sor daitezken behin behineko beharrak asetzeko. Hain zuzen ere:

EREMUAK	LAN POLTSA
GARBIGUNEAK	GARBIGUNETAKO LAN POLTSA
BILKETA	PEOI- GIDARIEN eta PEOIEN LAN POLTSAK
BULEGOA	ADMINISTRARIEN LAN POLTSA

Lan poltsa hauek, eremu bakoitzean egon daitezkeen beharrak behin behinean asetzeko osatu dira. Hortaz, Mendialdeak lanpostu finkoren bat betetzeko beharra izango balu beste prozesu bat ireki beharko luke, lan poltsa berri hori lanpostu finkoak betetzeko egingo dela zehaztuz.

Behin behineko zerrenda hauetako kudeaketa arauak zehaztu asmoz, Mendialdea Mankomunitateko Lehendakariak UNAI MIRANDA BERROETAK, Tokiko Araubideen Oinarrizko 7/1985 Legearen 21.1.g) artikulua ezarritako eskumenean oinarritua, honakoa

EBAZTÉN DU:

Mendialdea Mankomunitateak dituen lau lan poltsen kudeaketarako honako arauak adostu ditut:

LEHENENGO: Zerrenden erabilera

Mendialdea Mankomunitateko eremuren batetan behin behineko langilego beharra sortzen den unean, eremu horretako kontratazio zerrendara joko da, bertan ezarritako hurrenkera errespetatuz.

Bilketa eremuko peoien zerrenda, peoi gidarien zerrendarekiko subsidiarioa izango da. Hau da, peoi gidarien hautagaien zerrenda agortzen dela ziurtatu arte, ez da peoien zerrendaren erabilerarik egingo.

BIGARRENA: Harremanetan jartzeko modua

Hautagaiekin harremanetan jartzeko, zerrenda honetako pertsonak hainbat telefono zenbaki eta helbide elektronikoko erraztu ditzakete.

Datuak beti ere eguneratuak izatea interesdunen ardura izango da.

HIRUGARRENA: Eskaintza egiteko saiakerak

Telefonoz pertsona bakoitzarekin egiten den eskaintza bakoitzak, hiru saiakera izango ditu bi egunetan zehar, hautagaiek erraztu dituzten datuen bidez. Deialdi bakoitza idatziz zehaztua utziko da.

Hiru saiakerak egin ostean, pertsonaren bat topatzen ez denean, zerrendan hurrengoa dagoenari deitzen zaio, horrela lanpostua bete arte.

Kontaktatu ezin izatearen ondorioz kontratatu gabe geratu diren interesatuak, zerrendan dagokion tokian mantenduko dira.

LAUGARRENA: Bat bateko kontratazioak; aurreikusi ezin diren kasuak

Eremu zehatz batetan egun batetik besterako langilego beharrak sortzen direnean (ohiko langileen baja edo ezintasun kasuetan adibidez) lan eskaintzak zerrendako hurrenkeraren arabera telefono dei bidez eskainiko dira eta baiezkoa ematen duen lehendabiziko pertsonari eta berehala sartzea onartzen duenari emango zaio.

Mendialdea Mankomunitateak aurreikusi ezin diren behar hauek ezagutu eta ahal bezain pronto deituko ditu hautagaiak, beti ere, deitu eta goizenez, hurrengo egunean lanean hasteko denbora emanaz (alegia, ez egunean bertan). **Beharra sortu eta 15 egunetik beherako lan hasiera epearekin egiten diren eskaintzak hartuko dira "bapateko eskaintza" moduan.**

Langile baten ordezkapena egiten ari den langile bati kontratua bukatzen zaionean, bapateko beste behar bat sortzen bada, eremu berdinean kontratua bukatu ondorengo 2 hilabeteetan, behar berri hori betetzeko kontratua langile horri eskainiko zaio eta ez zaio lanpoltsako beste langileei eskainiko.



MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

Elbarren, 1, 2

31880 Leitza

Tlf / Fax: 948 510 444

info@mendialdea.eus

Esaterako: zerrendako norbait kontratatua izan da behin behinean (programatuta edo bat-batean) eta kontratua bukatu eta hurrengo 2 hilabetetan adibidez, bat-bateko beste kontratu bat sortzen bada, zuzenean berari eskainiko zaio kontratua.

BOSTGARRENA: Aurrez planifikatu daitezkeen kontratazioak

15 egun edo gehiagoko aurrerapenarekin aurreikusi daitezkeen langilegoaren beharrak betetzeko (oporraldiak, programatutako bajak, konpentsazio orduen baimenak, eszedentziak etab.), zerrendako hautagaien hurrenkera jarraituko da (aurreko bi hilabeteetan bat-bateko kontratuak zein langilek bete dituen kontutan izan gabe).

Kontratu hauek, 15 eguneko aurrerapenarekin eskaini ahalko ditu Mankomunitateak eta eskaintzen diren momentutik 48 ordutako epean erantzun beharko du langileak.

SEIGARRENA: Lan eskaintzari ezezkoa ematea

Pertsonaren batek eskaintako lanpostuari ezezkoa esaten badio, zerrendatik kanporatua izango da, honako salbuespenak ematen badira izan ezik:

a) Bat-bateko kontratu bati emandako lehenengo bi ezezkoetan: abisua eman eta 15 egun baino gutxiagoko aurrerapenarekin lanean hasteko epea eskatuko balitzaio. Hautagaiak ematen duen hirugarren ezezkoan jada zerrendatik kanporatua izango da.

b) Hurrengo atalean azaltzen den kasuetakoren bat eman eta justifikatzen badu.

ZAZPIGARRENA: Hautagai zerrendatik kanporatua ez izateko kasuak eta hauen justifikaziorako modua:

a) Behartua egotea, indarrean dagoen izendapen edo kontratu administratibo edo lan-kontratuarekin.

Egoera hau, lan kontratua, izendapena, azkeneko nomina edota lanean dagoela adierazten duen ziurtagiria aurkeztuz egiaztatuko du.

b) Ezintasuna, amatasun/aitatasun/ edoskitze baimenak edo adopzio baimenetako egoera batean egotea.

Aipatutako egoera egiaztatzen duen agiri, ebazpen, mediku ziurtagiri edo seme-alabaren jaiotza edo adopzio ziurtagiri bidez ziurtatuko da.

- c) Hiru urte baino gutxiagoko seme-alaba baten zaintza edukitzeagatik. Seme-alabaren jaiotza edo adopzio ziurtagiri bidez ziurtatuko da.
- d) Familiko baten zaintza izatea, odolkidetasun edo kideetasun bigarren mailaraino, adina, istripu edo gaixotasunagatik menpekotasuna aitortua duena.

Odolkidetasun edo kideetasun maila ziurtatzeko beharrezkoak diren erregistro zibileko ziurtagiri edo famili liburua, eta zainduaren adin, istripu edo gaixotasuna justifikatzen duen osasun ziurtagiria, edota menpekotasun aitortpena.

- e) Norberaren ezkontza edo 6/2000 Legea, uztailaren 3koa, bikote egonkorren berdintasun juridikoaren antzeko egoeragatik, uko egiten badio gertatu denetik 15 egunen ondoren.
- f) Ezkontza edota bikote egonkorra egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko ditu.

Aipatutako egiaztatze dokumentazioa, lan eskaintzari ezezkoa eman eta hilabete bateko epean justifikatu beharko dute interesdunek, Mendialdea Mankomunitateko bulegoan, posta bidez edo posta elektronikoko bidez (info@mendialdea.eus helbidera) igorrita.

Hautagaietako bat, berriz ere kontratatua izateko zerrendan aktibatze eskatu ostean, ezingo du arrazoi eta eragile berberagatik, kontratu gehiagori ezezkoa eman.

ZORTZIGARRENA: Kontratatze hautagai gisa berraktibazioa

Aipatutako kasuetan interesatuek zerbitzuak emateko libre daudenean jakinarazi beharko dute, idatziz. Komunikazio hau gertatzen den arte, ez zaie beste posturik eskainiko.

BEDERATZIGARRENA: Kontratazio zerrendatik baztertzeko kasuak

Zerrendatik baztertuak izango dira, ondorengo kasuetako bat gertatzen bada:

- a) Eskainitako lanpostuari zerrenden kudeaketarako arautegi honetatik kanpoko bestelako arrazoiren batengatik uko egitea.
- b) Bat bateko kontratu eskaintzari hirugarren aldiz ezezkoa emandakoan.



MENDIALDEA MANKOMUNITATEA
Elbarren, 1, 2
31880 Leitza
Tlf / Fax: 948 510 444
info@mendialdea.eus

- c) Eginiko kontratuari uko egitea.
- d) Deialdi bidez onartutako postuaren kontratua ez sinatzea, onartua eduki ondoren.

HAMARGARRENA: Lanean hasteko moduan badago eta lan eskaintzari baeizkoa ematen dion lehen hautagaiari kontratua egingo zaio.

Kontratutako pertsona honek, bere eremuko deialdiko oinarriak ezartzen zituen baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko dokumentazio originala edo konpultsatua aurkeztu beharko du, aurretik egin ez badu. Esaterako, NAN, ikasketa tituluak edota kamoi gidabaimena, besteak beste.

HAMAIKAGARRENA: Zerrenda ezberdinen arteko kudeaketa

Langile bat lan poltsa batean baino gehiagotan badago, eta horietako batean lanean aritzen bitartean beste eremuren batean beharra sortuko balitz, lan poltsako bere lekua mantenduko luke, justifikaziorik aurkeztu behar izan gabe.

Horrela adosten dut, eta interesdunei jakinarazita izan dadin Mendialdea Mankomunitateko webgunean eta Leitzako iragarki oholean iragarritz. Modu berean, hurrengo Batzar Orokorrari ebazpen honen berri emango zaio.

Leitzan, 2019ko azaroaren 26an.

LEHENDAKARIA

Unai Miranda Berroeta

IDAZKARIA

Amaia Elkano Garralda

Zabor bilketa eta kudeaketa
Elbarren K./ 1, 2. solairua - 31880 Leitza
LEZ./O.I.R.: 07/0000000
Tlf./Fax.: 948 510 444 - info@mendialdea.eus

